



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: ESIO TROT

© 1989, Roald Dahl Nominee Ltd.

© 1990, Quentin Blake

© Itzulpena: 2018, Joseba Santxo Uriarte

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-38-4

Lege-gordailua: M-19624-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhua Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Ako Trod

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

begiko

Clover eta Lukeri



Egilearen oharra

Duela zenbait urte, nire seme-alabak artean txikiak zirela, dortoka jendea izaten genuen beti etxean. Garai hartan ohikoa izaten zen dortokaren bat narras ikustea gure lorategian edo etxearen atzealdean. Dortokak erraz lor zitezkeen orduan edozein maskota-dendatan eta seguruenik haiexek izaten ziren maskoten artean arazo gutxien sortzen zituztenak.

Dortokak kutxatan iristen ziren Ingalaterrara, gehienbat Ipar Afrikatik. Alabaina, urte asko ez direla, lege bat jarri zuten indarrean dortokak herrialdean sartzea galarazten zena. Lege hura ez zuten ezarri gu dortoketatik babesteko, dortokak ez baitziren inondik ino-

*ra arriskutsuak. Legea dortokak eurak babes-
teko ezarri zen. Izan ere, dortoka-salerosleek
ehunka dortoka-ale sartzen zituzten kutxa-
tan, eta itsasontziz bidali, bidean janik ez urik
eman gabe. Azkenean, Gobernuak jarduera
krudel hura debekatzea erabaki zuen.*

- 12 *Liburu honetan irakurriko dituzun gertae-
rak, beraz, dortokak edozein maskota-denda-
tan lasai asko eros zitezkeen garaikoak dituzu.*





Hoppy jauna estai txiki batean bizi zen, hormigoizko eraikin garai bateko goialdean. Bakarrik bizi zen. Beti izan zen gizon bakartia, baina jubilatutako zenetik, inoiz baino bakartiago zebilen.

Bi maite zeuden Hoppy jaunaren bihotzean. Batetik, haren balkoiko loreak. Pototan, tututan eta saskitan hazten zituen, eta udan balkoi txiki hura kolore iraultza bilakatzen zen.

Hoppy jaunaren bigarren maitea sekretua zen, eta sekretu hura ez zuen inorekin partekatzen.

Hoppy jaunaren estaiaren azpiko balkoia gainerakoak baino puska bat irtenago zegoen eraikinetik, eta beraz, Hoppy jaunak ederto batean ikusten zuen beti han behean zer gertatzen zen. Balkoi hura adin ertaineko emakume erakargarri batena zen, Silver andrearena, hain zuzen ere. Silver andrea alarguna zen, eta bakarrik bizi zen. Eta berak ez bazekien ere, huraxe zen Hoppy jaunaren maite sekretua. Hoppy jaunak aspalditik maite zuen beheko balkoi-ko Silver andrea, baina oso gizon lotsatia zenez, ez zen inoiz ausartu andreari bere maitasunaren seinalerik txikiena ere adierazten.





16 Goizero-goizero, Hoppy jaunak eta Silver andreak elkarritzeta polita izaten zuten, bata behera begira, bestea gora begira, baina handik gora ezer gutxi. Balkoi bien artean metro batzuk baino ez zeuden, baina Hoppyrentzat metro gutxi haiek kilometroak ziren. Behin baino gehiagotan egon zen Hoppy jauna Silver andrea tea eta pastak hartzera gonbidatzekotan, baina azken unean hitzak katigatu egiten zitzaizkion ezpainen artean, eta mezua aireratu gabe geratzen zen beti. Izan ere, oso gizon lotsatia zen Hoppy jauna!

Sarri pentsatzen zuen: «Ai, zerbait handia egiteko gauza banintz! Adibidez, bera gaizkile arriskutsu batzuen atzaparretatik salbatzea... Ai, egitada arranditsu bat burutzeko gauza banintz! Hartara heroi bihurtuko nintzateke haren begietan! Ai...».





Kontua da Silver andrearen bihotzak bazuela jaberik zegoeneko. Alfie izeneko dortoka txiki bat zen haren bihotzeko kuttuna. Hoppy jauna egunero irteten zen balkoi-
ra, eta han behean Silver andrea ikusten zuenean haren dortokatxoari hitz gozoak xuxurlatzen eta oskola eztiki laztantzen, jeloskor jartzen zen, oso. Noraino eta bere burua dortoka bihurtuta imajinatzeraino,

Silver andrearen hitz goxoak entzuten eta laztan amoltsuak hartzen.

Alfiek urteak zeramatzan Silverren balkoian bizitzen, uda zein negu.

Andreak xaflak ipini zituen balkoiaren ertzetan, Alfie balkoitik behera amildu ez zedin. Bai eta txoko batean etxola txiki txukun bat atondu ere, gauez epeletan lo egin zezan.

19

